

1-Adineko pertsonak teknologiarekiko dituzten zailtasunak askotarikoak izan daitezke, eta horrek baliabide digitalez baliatzeko ezintasunak eragiten ditu. Teknologia menderatzeak adinekoei eguneroko beharretan independenteago izaten laguntzen die, hala nola: senideekin eta lagunekin harremanetan egotea (WhatsApp, posta elektronikoa, bideo-deiak), fakturak ordaintzea, hitzorduak hartzea edo erosketak online egitea.

Bezeroekiko pertsonalizazioak beste enpresengandik bereizten gaitu. Adinekoentzako klaseak erritmo egokituak, hizkuntza sinplea eta adibide praktikoak eskaintzen badituzte, erabiltzailearen beharretara hurbilduz, zerbitzua esanguratsuagoa eta eraginkorragoa izango da. Horrez gain, pazientzia eta enpatia duten irakaskeak ditugu kontratatuta, zerbitzua atseginagoa izateko.